

TOKIKOM

2019ko iraila | 195. zenbakia

aitor!

txoriezko izkaria



Larrabetzuko eskolako jantokia

Etxean bezala



IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEA

Taileri kalea 6 DERIO 94 406 36 02

ban
BASERRIANTZOKIA

Txorierriko **ABESLARI,** **MUSIKARI** eta **DANTZARIAK**

Baserri Antzokiko eszenara

Auzolan polita pitika-pitika



Kultura eta **euskara** alkar hartuta

Askotarikoak batzeko **topagunea**

Aisialdia nahiz ekintza, **Baserri Antzokiko** giltza

Jo ta ke, zuen dantza gurearen **truke**



-  **4 Eretxiak**
-  **5 Laburrak eta albisteak**
-  **11 Irudietan... Gotzon Asla, erleen zaindaria**
-  **12 Gurean izan da... Miren Amuriza, idazlea**
-  **14 Gaztea eta... Mikel Valladares, atleta**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 11/13 sumarioko epaiketa**
-  **20 Gai nagusia... Larrabetzuko eskolako jantokia**
-  **24 San Migel jaia**
-  **26 Txorierritarrak munduan... Iran, ikustekoa**
-  **28 Altzora Eguna, Sondikan**
-  **30 Txorierriko Udalen diru-gastuak**
-  **32 Abeslari, musikari eta dantzariak BANen**
-  **34 Teknologia... Auto elektrikoa**
-  **35 Aikorrizketa... Diglosiarik bai Txorierriin?**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



12 Miren Amuriza, idazle eta bertsolaria



18 11/13 sumarioko epaiketa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Ana Mezo, Ixone Zubieta, Einer Larrabeiti, Jon Ander Rola, Xabier Diaz, Jon Goikouria Larrabeiti, Idoia Andres, Jose Luis Barreneitea eta Itallen bertso eskola

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



ANA MEZO
Irakaslea

Saso honetako eskatzen du datozen hila-beteetako gorabeherei erreparatzea. Irailaren 16an 47 euskaldunen epaiketa hasi zen. Herrirako eta Etxerateko ki-deak, abokatuak, psikologoak izan dira auzipetuek, bakoitza bere esparruan presoan eskubide eta osasunaren gainean lanean ibili direnak. Seiehun eta bat urtetako zigor eskaerari aurre egin behar izan diote. Beste 38 ume "motxiladun ume" bihurtzeko eta herritarren konbibiendiarako kolpe handia izateko arriskua erreala egon da.

Uda amaiera eta udagoiena

Auzipetuek aparteko borondatea erakutsi eta fiskaltzarekin akordiora heldu dira nahiz eta akordio horrek ez duen ekarri behar den besteko emaitza baikorra.

Ondoren, urrian, Katalunian ekintza baketsuak eta demokratikoak egiteagatik, kartzelan dauden preso politikoek epaia ezagutuko dugu. Horiei eskatzen zaien kartzela zigorak ez du neurrik, eta zigorra hala etor ez dadin gure esku dagoen guztia egin beharko dugu. Herritar askoren elkartasuna aurretik izan dute eta hala adierazten jarraituko dugu.

Bestelako konfliktuak laboralak ere badaude pil-pilean, besteak beste, metaleko langileena, Gipuzkoan etxeko beharginean eta hezkuntzako sektore batzuk ere kalean ikusiko ditugu.

Udako herri batzuetako eten laburra ostean, irailean pentsiodunen astelehenetako kontzentrazioak ere indartu egin dira. Ehun herri aldera dira asteleheneko kontzentrazioak egiten dituztenak.

Urrirako eta azarorako beste mobilizazio batzuk planteatuta daude eta antolaketa lanak oso aurreratuta. Pentsiodunen plataformek deituko dituzte mobilizazio berri horiek. Urriaren 1a "pertsona nagusiaren" eguna da. Horren harira irailaren 30ean, astelehenean, ohiko kontzentrazioak kontzentrazio bereziagoak izango dira. Azaroaren erdi aldera beste mobilizazio herri-tar bat egingo da. Horretan Hego Euskal Herriko beste eragile batzuk inplikaturik daude. Askok ulertu dute pentsiodunen eskariak adin guztietako herritarrak zuzenean ukitzen dituztela. Eskariok epe laburrean lortu beharrekoak dira. Lortzeak edo ez lortzeak, epe luzerako gerizpe mota bat edo beste zabalduko du.

Arazoak arazo, beti aurrera egin da: ahalmen handia erakutsi da korapiloak askatzeko. Beraz, gure ahalegina, denon eskubide sozialak eta politikoak errespetatu daitezkeen eta kolektibo bakoitzak berak irabazitakoa eskura dezan.

Zorioneko egokitzapena!

Oporrak joan dira eta badator errutina. Eta ikasturte berriarekin: zorioneko egokitzapena! Lehenengoz eskolara doazen umeek eta haiekin gurasoak pasatu behar dugu hortik. Eta denok behar dugu egokitzapena. Nork ez luke negarrik egingo oporraldiaren osteko lan egunetan? Eta helduek horrela erreakzionatzen badugu, zelan sentituko dira zer gertatzen den ulertzen ez duten umeak?

Beste kontu bat da zelan egiten den. Hasieran, gurasoak umeekin batera gelan; ondoren, umeak gelan eta gurasoak atean... Eta horrela ordutegia pixkanaka luzatuz. Nik gauzaren bat aldatuko nuke:



IXONE URRUTIKOETXEA
Tximintx komunitatearen kidea

gela gurasorik gabeko espazioa izatea. Gurasoak gelatik kanpo egon beharko ginateke: umeek gurasoak gelan egotera ohitzen direnerako, desagertzen direla ulertu behar dute bestela.

Bestalde, ordu laurdenez luzatzen joaten den ordutegian ez dira kontuan izaten adin honetan hain garrantzitsuak diren bazkalordua eta lo-kuluxka. Egokitzapenaldian, goizez hiru ordu egotetik, zazpi ordu egotera pasatzen dira. Goizeko ordutegia arinago luzatuta, egokitzapen barruan sartuko genuke bazkalordua, azken egunerako lo-kuluxka bakarrik utziz.

Txarrena, ordea, familia eta lana uzartzeko baldintzarik ezak itotzen gaituela da, eta ezin dugula momentu honetaz familian gozatu.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Eragabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Gurpide komunitatea, Larrabetzuko Produktuen XXI. Azokan



a: Idoia Andres

Urriaren 20an Larrabetzuko Bertoko Produktuen Azoka ekitaldia antolatuko da 21. aldiz. 1997an Arrekikili Euskara Elkartearen ekimenez jaio zen azoka, Larrabetzuko baserrietan topa daitekeen produktu barietate handia eta kalitatezkoa herriko plazan, herritarren aurrean aurkeztu eta aldarrikatzeko asmoz. Gurpide Baserritar eta Kontsumitzaileen Elkartek antolakuntzaren ardura 2010ean hartu zuenetik, hori bera izan da helburu nagusia, baina ez bakarria. Hala, xede hauek ere baditu: herri konpostajea zabaltzea, nekazaritza lurrak berpiztea, eskolako jantokia bertoko produktuekin hornitzea eta ekoizpen agroekologikoaren kontsumoa bultzatzea.

Helburu nagusiak beteta

Aurten Gurpidek hamar urte bete ditu eta kideek adierazi dute apurka-apurka aurrerapausoak lortu direla ezarritako helburu nagusietan. Herri-konpostajea hedatuta dago herrian, ekoizpen proiektuentzat eskuragarri dauden nekazaritza-

lurren inbentarioa egin da, eskolako sukaldean bertoko produktuen presentzia normalizatuta dago eta ekoizpen agroekologikoko proiektu berriak ezartzen dabiltza.

Udalak emandako babesarekin batera, ezinbestekoa izan da Larrabetzuko hainbat herritarren eguneroko lana eta ekarpena. Izan ere, ehunka larrabetzuar ekimenetako batean edo hainbatean inplikatu dira, eta horiek guztiek osatzen dute Gurpideko komunitatea: baserri-tarrak, elkartearen ezinbesteko oinarria; otzarakideak, euren kontsumoarekin bertoko ekoizpena bermatzen dute; 2013tik konposta egiteko gai organikodun 335 tona ekoiztu duten 300 etxe baino gehiago eta bederatzi denda eta taberna; Txinpasmendi Guraso Elkartea, eskolako sukaldeko langileak, jantokiko zainbaitzaileak eta haurrak; Bertoko Produktuen Azoka antolatzen laguntzen duten pertsona guztiak, eta Bertoko Produktuen Azokan erosten dutenak; eta euren lurrak proiektu berrien instalaziorako eskaintzen dituztenak, eta lan horretan lagundu dutenak, besteak beste.

Kukularrako lanen bigarren fasea urrian hasiko da

Urria hasita, Kukularrako lanen bigarren faseari ekingo diote eta 21 hilabeteko iraupena izango dutela iragarri du Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko Imanol Pradales foru diputatuak. Zati horretatik 135.000 ibilgailu inguru igarotzen dira egunero, eta diputatuak adierazi duenez, BI-637 eta N-637 errepideen konexioa ahalbidetuko duten lanak bai segurtasunean, bai bidaia-denboretan hobekuntzak ekarriko dituzte. Joan den apirilean amaitu ziren lehen faseko lanak, eta Pradalesek ziurtatu du ibilgailu-edukieran eta arintasunean berehalako eragina izan dutela.

Berez, gaur egun Kukularreko egiturak komunikazio-lotune konplexua duela adierazi du Gorka Perezek, Lurraldeko Garapen zuzendariak, bertatik Txorierriko autobia-ko eta Leioako errepide nagusiko trafikoa igarotzen baita. Trafikoa arintzeko errei berria gehituko zaio errepide biak lotzen dituen konexioari, BI-637ko zubibidea barne.

Arrontegitik Txorierriko autobiarako konexioan ere ohiko errepidearen azpitik igaroko den pasabidea ezarriko dutela adierazi dute Diputaziotik, gaur egungo komunikazio-lotunea sailhesteko, eta Arrontegiko zubitik Enekurira joan nahi duten erabiltzaileek irteera berri bat izango dutela gehitu dute.



TURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48160 Lodu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

**sarraila-denda**
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatorierri.com
www.cerajeriatorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4. lorja
48160 Derio

elekma
URPATZEREN BAT DUTEN ETXETREINAK ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETREINAK ELEKTRIKO BERRIAK

Lehenengo markak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txori etorbidea, 25 3. N • 48160 Lodu
T: 946 399 232
www.elekma.es

Beldur Barik lehiaketak 10 urte bete ditu

Emakundek bultzatutako lehiaketak 10 urte bete ditu eta Txorierri bat egin du saioarekin. Gazteen artean errespetua, berdintasuna eta indarkeria sexistaren aurkako jarrerak bultzatzea du helburu. Lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta nesken ahal-duntzea zein mutilen konpromisoa erakusten dituzten jarrerak sarituko ditu. Parte hartzeko epea irailaren 9an zabaldu zen eta azaroaren 5ean itxiko da.



Loiuko Nekazaritza, Gastronomia eta Eskulangintza Azoka

Azoka hogei eta zazpigarrenez egingo dute urriaren 20an, 10:00etatik aurrera. Herriko plazan eta Alonso-tegi plazan gastronomiako saltokiak ipiniko dira, eta bertan baserriko produktuak egongo dira ikusgai eta erosgai, hala nola ortuariak, ogia eta eztiak. Bestalde, artisautzari lotutako saltokiak ipiniko dira frontoian.

Ohikoa den moduan, txakolina eta oilaskoa dastatu ahal izango dira, eta herri kirolak gozatzeko aukera egongo da. Kale-animazioa eta erromeria ere izango dira.

Euskaraldia hizkuntza jokaerak nabarmenki astindu ditu

EUSKARALDIA

Soziolinguistika klusterrak ahalbidetu du Euskaraldiaren inguruko ikerketa erakunde hauen laguntzarekin: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Topagunea. "Euskaraldiaren lehen edizioak nabarmenki astindu zituen ekimenean parte hartu zutenen hizkuntza-jokaerak: jarduerako 11 egunetan eta hiru hil geroago proportzio altuan eutsi egin zitzaion" adierazi du ikerketak. Bertan jaso den moduan, oro har, parte-hartze femeninoa gailendu da, *ahobizien* presentzia *belarriprestena* baino zertxobait altuagoa izan da eta parte-hartzaileen adina zein lurraldearen esparruan banaketa parekoa izan da.

Euskaraldia I. Emaizten Azterketa lana aurkeztu zen EHU Gipuzkoako campusean, eta han izan ziren Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua; Garbiñe Mendizabal, Hizkuntza Berdintasune-

ko Gipuzkoako diputatua; Elena Laka, Euskaltzaleen Topaguneko presidentea; Pello Jauregi, ikerketaren zuzendaria; eta Uxo Anduaga, Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria.

Laginean 18.383 *ahobizik* eta *belarriprestek* hartu zuten parte, hiru galde-tegiri erantzunez: Euskaraldia hasi aurrekoa, Euskaraldia amaitu berrikoa eta Euskaraldia amaitu eta hiru hilera. Bingen Zupiriak adierazi zuen Euskaraldiaren lehen edizioaren eragin praktikoen gaineko erradiografia dela: "Hasieratik esan genuen Euskaraldia ez zela jolas bat; hizkuntza ohituretan eragin nahi duen ekimen masibo eta berritzailea da. Helburua eragitea da, eta ikerketari esker neurtu ahal izan dugu zein neurritan izan den eraginkorra. Milaka herritarren hizkuntza-praktikak aztertu dira azterlan honetan, eta esan dezakegu Euskaraldiaren lehen edizioaren eragin praktikoen gaineko erradiografia bat dakarkigula lan honek".

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar baten
-Aurrikorua da
-Especialitatea
umeak

Oso Politak Hakima Flissi fitxatu du

Last Tourreko Oso Polita diskoetxeak Hakima Flissi abeslari lezamarra fitxatu du. "Gaztea iluntasunetik dator, argirantz abiatuta eta egia esateko geldiezin eta distiratsu", adierazi dute ekoiztetxetik.

Musika zainetan eta azalean daraman abeslariak ("Musika Jainkoa da" tatuajea darama besoan) musika komunikazio erreminta polita dela adierazi du *Mondo-Sonoro* aldizkarian. 2016an Doca Cat, Kali Uchis, Abra edo Sabrina Claudio artistak deskubritu zituen, eta aurrerago Mahaila, Jorja Smith IAMDDDB eta Willow bezalako artisten lanak ezagutu zituen, betiereko Michael Jackson edota Bob Marley klasi-ko eztaba daezinak ahaztu barik. Youtube eta SoundCloud plataformetan artista go-gokoen abestiak autoeditatzen eta abesti propioak eskegitzen hasi zen Hakima.

Urte biko kontuan, 2018an, *Vuelo* ize-neko singlea kaleratu zuen eta urte bereko apirilean Gaztea Maketa Lehiaketako 27. edizioa irabazi zuen Flissik eta hortik *Factor X talent show*era salto egin zuen, eta Risto Mejideren –saioaren epaileetarikoa bat– errespetua atzeman zuela kontatu



zigun. Urtea amaitzeko *El Eco del Recuerdo* izeneko lehen EPa argitaratu zuen eta Eus-

kal Herriko jaialdi nagusi biren agertokietan abestu zuen: BBK Live eta Bime Live.



Gela Pedagogikoak emakumezkoen taldea aurkeztu du jendaurrean

a: Gela Pedagogikoa

Txorierriko Nesken Taldea 2020 20 emakumezko txirrindularik osatzen dute, kadete eta gazte mailetan, eta txirrindularitzaren modalitate guztietan hartuko dute parte: errepidea, pista, zilo-krosa eta mendia. Gazte mailako txirrindulariek lehenengo proba edukiko dute urriaren 13an, Burgosen; eta kadeteek, hurrengo asteburuan. Egitasmoak txirrindularitzan

parekotasuna bultzatzea du helburu, eta Madariagak eta Iñaki Zaratek zuzenduko dute. Haiekin batera, hauek hartuko dute parte lantaldean: Joseba Gorostiza (kirol plangintza), Ibai Lejarraga eta Mari Mar Sainz (kirol zuzendaritza) eta Lizandra Pires (Osasun Centrum-aren arduraduna).

Taldea Baserri Antzokian aurkeztu zen jendaurrean eta bertan lagun asko batu ziren; haien artean, Igor Anton eta Markel Irizar izan ziren.



Ondarearen jardunaldiak, Txorierrin

a: Joseba Apezetxea

"Ondarea Plazara!" lelopean, Ondarearen Europako Jardunaldien 19. edizioa aurkeztu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak adierazi moduan, herriarrak jardunaldietan parte hartzea gonbidatzeaz gainera, ekimenaren helburu nagusia da arte komunitarioek duten balio kulturala azpimarratzea. Arte komunitarioen barruan era guztietako adierazpenak daude, hala nola ludikoak, errituak, bat-batekoak eta zeremonietakoak; baita belaunaldiz belaunaldi transmititu diren hainbat objektu, leku, teknika eta ezagutza ere. "Dantzak, herri kirolak, musika eta jokoak, erromeriak, bertsolaritza, antzerki eta musika-emanaldiak ere urrian herri askotako plazetan aurkeztuko den errepertorio zabal horren barruan daude". Aurten, 200 ekintza inguru antolatu dira, eta jardunaldietan 58 udalerrik hartuko dute parte; horien artean Loiu, Derio, Zamudio eta Lezama daude.

Loiun "Plazara jolastera" jarduera antolatu dute urriaren 18rako. Umeek zein nagusiek antzinako jolasean aritzeko aukera izango dute: puxtarriak, txapak, tortolosa, ziba, kromoak... Ikasteko, jokatzeko, gogoratzeko eta batez ere gozatzeko arratsaldea izango da, eta, gainera, gaiari lotutako opariak zozkatuko dira parte-hartzaileen artean. Ekintza Herriko Plazan egingo da 17:00etatik 18:30era, eta erreserba egiteko 944 531 951 telefono-zenbakira deitu daiteke, edo liburutegia@loiueus helbide elektronikora mezu bat idatzi.

Derion, udaletxearen plazan hainbat urtez egon zen euskal pilotako frontoia- ren omenez, urriaren 19an (12:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:00etara) eta 20an (12:00etatik 14:30era) gozatu ahal izango da kirol tradizional hori. Horrela,



bada, lehiaketak eta beste jarduera batzuk egingo dira. Informazio gehiagorako: 944 541 019 telefono-zenbakia eta kultura@deriokoudala.net helbide elektronikoa. Bestalde, Bizkaiko Elizaren Histori Artxi- boan "Ondarea plazara eta alderantziz" argazki-bilduma antolatu dute urriaren 18rako (16:00etan). Parrokiek bizitza so- zial, espiritual eta kolektiboaren testigan- tzak batu dituzte menderik mende, eta zeregin hori argazkien bidez erakutsiko dute: erromeriak, jaiak, ekitaldiak, proze- sioak, hotsandiko ospakizunak, errome- saldiak... Informazioa eskuratzeko eta erreserba egiteko: 944 062 490 telefono- zenbakia eta info@aheb-beha.org helbide elektronikoa.

Arimen Gaua

2017. urtetik, Zamudiok Arimen Gaua ospatzen du urriaren 31n. Udalerriko na- gusien jakituria oinarritzat hartuta eta adin guztietako herriarrek parte hartuta, lehengo ohitura gaur egungo eretara eka- rri dute ikuspegi artistikotik eta ingurume- naren ikuspegitik. Etxeko olio egindako

kandelek argituko dute aurtengo desfilea, eta mozerro birziklatuak jantziko dituzte. Gainera, egun horretarako beren-beregi sortutako kopia zahar bat abestuko dute. Horregatik, mozerro birziklatuak egiten ikasteko tailer bat egongo da urrian zehar, eta koplak egin eta abesteko beste bat. Udalak eta herriko kultur taldeek antola- tutako ekintza da, eta 18:00etatik aurrera izango da Kultur Etxean. Tailerretan izena emateko: 944 060 990 eta 944 030 622 te- lefono-zenbakiak eta udala@zamudio.eus helbide elektronikoa.

Azkenik, Mikel Zarateren hats litera- rioaren atzetik ibiliko dira Lezaman. Zara- te (1933-1979) euskaltzale amorratua izan zen eta bere lanak sentimendu hori du barru-barruan. Hilaren 6an, ibilbide litera- rioa egingo da idazlearen Lezamako txo- ko kutunetan barrena, hil zenetik 40 urte igaro direnean, hura omentzeko modu aparta baita. Hitzordua 11:00etan ipini dute Hilario Astorki plazan. Informazioa eta erreserbak: 944 556 126 telefono-zen- bakia eta liburutegia@lezama.org helbide elektronikoa.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-itunak, orokorrean
Autokomunitateak
Mantentze garbi-itunak
Bulegoak eta lokalak
Orra enbierako garbikerak
Itasotzak
Zabur bilaka

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraun Facebook-en

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



Tximintxek lehen bilgunea antolatu du urriaren 26rako

Hurrengo urteetan antolatuko diren ekintzak eta lan-ildoak zehaztea du helburu Tximintx komunitatearen bilerak. Jarduera urriaren 26an izango da 9:30etik 14:00etara bitartean, Larrabarri Baserrian (Derio). Bilera amaitzen denean poteoa egingo dute Derioko kaleetan zehar. Bileran parte hartu ahal izateko izena eman behar da Tximintxeko Facebook kontuaren bidez.

Perretxikotara, urriaren 19an eta 20an

Zizegorri Zamudioko elkarteak urriaren 19 eta 20ko astebururako irteera bat antolatu du. Mikologia zaileak Corcontera (Kantabria) abiatuko dira perretxikoak batzera. Urriaren 19an, 07:00etan, autobusa aterako da Zamudioko Koltza aparkalekutik, eta hurrengo egunean 17:00ak inguruan itzuliko da leku berberera. Gaua aterpean emango dute. Izena emateko, telefonoz (658 74 65 37) edo emailaz (zizegorri@gmail.com) egin daiteke. Nagusiek 50 euro ordainduko dute; eta umeek, 25 euro. Antolatzaileek ohartarazi duten moduan, leku mugatuak daude. Gainera, egun bietarako hamaiketako eramateko eskatu dute. Gainerako otorduak prezioaren barruan daude.



Natura, Derioko Argazki-lehiaketaren ardatza

Derioko Argazki Taldeak (DAT) Derioko Argazki-lehiaketa antolatu du hamaigarrenez. Aurtengo gaia natura da eta lehiaketan argazkilaritzarako zaletasuna duen edonork hartu ahal du parte. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal du, zuri-beltzean edo kolorean.

Lehiaketan izena emateak sei euro balio du, eta argazkiak urriaren 18ra arte bidali ahal du dira www.datfotoderio.com webgunearen bidez. Webgune horretan ere eskuragarri daude lehiaketaren oina-

riak. Guztira, 450 euro banatuko dira sarritan, eta, gainera, lehiaketa baliagarria da 2019ko Argizaiola Sarirako: lehiaketa horren oinarrietan jaso duten moduan, Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren lehenengo hiru sailkatuak gonbidatuko ditu Argizaiola lehiaketan parte hartzera.

Bestetik, Derioko Argazki-lehiaketaren sariak azaroaren 30ean banatuko dira Kultur Birikan, eta egun horretan ere inauguratuko da argazkirik onenak jasoko dituen erakusketa.

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12

Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO OHELETTAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERAKO GORDINGINTZA APARTEA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak

Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 96 Fax: 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

tik tak

EGUNEKO MENUA

lehenengo platina
bigarren platina
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55


Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Laura Peña, Altzora elkarteak antolatutako argazki-lehiaketaren irabazlea




a: Laura Peña

Aurreko urteetan moduan, Altzora Sondikako euskara elkarteak udari lotutako argazki-lehiaketa antolatu du. Lehiaketara 45 lan aurkeztu dira eta 10 finalista egon dira: irabazlea Laura Peña izan da. Peñak San Pedro de Rozados herrian (Salamanca) egindako argazki bat bidali zuen lehiaketara. Irabazleak lagun birentzako afaria jaso du saritzat. Bestetik, argazkiak azaroaren 7tik aurrera eta hil amaiera arte egongo dira ikusgai liburutegian.



a: Aizkoa Olabarrieta



a: Josu Belasko Arango



a: Idoia Aurrekoetxea



a: Gema Blanco

48190 LEZAMA Bizkaia Carretera nacional, 30

S.A.T. LEGU
BERRITASUNAK ETA BERRIKUNTZA

F.: 94 455 64 17 T.: 94 455 64 98

LEJARRENE JATETXEA
Garaiotza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

TABERNA GAZTEDEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Gotzon Asla Larrea | Erleen zaindaria

Erretratueta aurpegia erakustea ezinbestekoa bada ere, kasu honetan justifikatuta dago. Hogeita hamar urte inguru daramatza Gotzon Geldon erleak jagoten. Hasieran etxerako eztia ekoizten bazuen ere (erlauntzako 40 kilo eztia ekoiztuz), gaur egun zaletasunagatik jagoten ditu Txorierriko erleak, bereziki Asia-ko liztorren erasoengatik. Eskuz egindako egurrezko erlauntzetan bizi dira Gotzonen erleak, eta udako tenperatura altuak jaitsi eta liztorrak desagertu ahala irteten hasi dira, negua hasi baino lehen.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Eskerrik asko Gotzon erlearen lagun, liztor asiarraren etsai maskaradun. Gure erleak babesten luzaroan jardun gero eztia danok dastatu dagigun!

Itallen Bertso Eskola

"...Carpe Diem, bizitza eta momentu bakoitza gozatu; eman lehentasuna zure atsedenerari..."

SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK ATSEDENERAKO

Zure ohea aldatuta, zure bizitza hobetuko dugu.

WWW.SUITDELUX.COM

SUITE DELUX LEIOA - Iparragirre 80, Leioa - Tf. 944 316 516
SUITE DELUX DERIO - Seminarioa, Derio - Tf. 944 545 147

"Hitz egokiaren bila nabil 12 urte nituanetik"

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Zer da Basa?

Eleberri laburra eta trinkoa dogu. Protagonista Sabina Gonejola izeneko andra basa da, baserri munduan bizi dana. Urteetan pilatutako bizitzako pisua aldean daroa eta lehertzeaz dago. Bere bulkada muturrera doan heinean inguruko egoera baldintzauko dau.

Pertsonaia oso definitua da.

Eleberria Sabinatik abiatu zan: emakumea, baserritarra... idealizazioan jaus- teko arriskua neukan heroi bat eraikiz, eta nire asmoa guztiz kontrakoa zan: lurreko pertsonaia gura neban, askorentzat antiheroia dana. Pertsonaia estiloa landu, eta hortik aurrera tramea eta testuingurua heldu ziran eta irakurleari Sabina maitatu eta gorrotatzeko atxakiak emoten joan naz: auzokideekin daukan hartu-emon, seme-alabak zelan zapaltzen dituan...

Errealidadearen ikuturik al dauka istorioak?

Danetarik dago. Sabina berez ez da existitzen, baina Sabina neure inguru hurbilean euki dodazen estilo horretako emakumeen egindako collagea da. Pertsonaia izanda, aspektu horreek eraikitze- ko andrearen testuingurua eraikitzen hasi nintzan: baserria, koinatua, seme-alabak... horrelaxe eraiki nebazan tramea eta ukitu nahi nituan gaiak.

Publiko zehatzik dauka Basak?

Banekien publiko jakin batekin enpatia sortuko neban: baserri mundua usaindu dauen jenteak errazago ulertuko dau istorioa. Publikoaren feedbacka jaso dodanean baserri mundukoek esan eustien nolabait identifikauta sentitu zirala. Bane- kian danak ez ebela hurbilpen hori era be- rean egingo. Idazkerezagaitik be konziente nintzan irakurle batzuk errazago bajatuko zirala irakurketatik: elipsi asko dagoz eta idazkera trinko samarra dauka.

Zelangoa izan da sormen-proze- sua?

Motela. Motela naz edozertarako: idazten, jaten, ibiltzen... eleberri hau idaz- teko XX. Igartza saria irabazi neban 2017ko

MIREN AMURIZA PLAZA | idazlea eta bertsolaria

Berrizko idazle eta bertsolari gazte eta irribarretsuak XX. Igartza saria jaso eta beka horregaz *Basa* eleberria publi- kau dau aurtan Elkar argitaletxeagaz, Sabina Gonejola ba- serritarraren inguruko istorioa. Perfekzionista ia-kompulsi- bo bezala definitzen dau bere burua hitz egokia bilatzeko orduan, eta pasa dan irailaren 19an Larrabetzun izen zan bere liburua aurkezten.

*"Baserri mundua
usaindu dauen
jenteak errazago
ulertuko dau Basa"*

*"Bertso, parranda
eta lagunengaitik oso
hurbila egiten jatan
herria da Larrabetzu"*

irailean, eta beka haretan zer egin gura neban idatzi behar zan, txosten halango bat. Txosten haretan nire bizitzako liburua idatziko nebala jarri neban, baina idazten hasi bezain pronto konturau nintzan hasie- rako proiektu ha eta egin nahi nebana ez etozala guztiz bat. Lehenengo fase baten, ideia osoa perfilatu behar izan neban, eta eleberria uste baino motzagoa izango zala konturatu nintzan.

Basa ez zan lehenengo titulua izan.

Proiektuaren izena *Paperezko Txoriak* zan. Liburuaren ardatza *Basarena* zan, bai- na *Paperezko Txoriak* izeneko tituluagaz Sa- bina egoera zaurgarriagoa irudikatzen ne- ban: bakardadea, zahartzaroa, heriotza... aditzera emoten. Beste buelta bat emon behar jakon horri.

Basak, ganera, konotazino ugari daukaz.

Basaz, lokatzaz ari garenean, Sabina erako andrakaz lotzen dodan hitza da: edo- zein etxeko zapatilak garbiak dira, alfonbra ganean egoteko modukoak; amamarenak, osterantzean zikinak, bazaztuta egon ohi dira. Beste adiera bat salbaia edo basatia da, domestikau bakoa eta basoan era na- turalean hazi egiten dana. Azken adiera batek biolentzia izateri egiten deutso erre- ferentzia. Adiera guztiak bat datoz ez ba- karrik protagonisteagaz, baita liburuaren beraren kontaeagaz be.

Eraginik izan al dau bertsolaritzak Basan?

Esplizituki ez, baina bai hizkuntzaren lanketan. Hitz egokiaren bila nabil 12 urte





nituanetik eta modu inkonzientean eragina izan dau bertsolaritzak. Bertsolaritza entrenamendu paregabea da ni bezalako pertsona perfektionista ia obsesiboentzako: esaldi perfektua bila daiteke, baina gogorazten deusku dana ez dala guk uste genuan bezala urtengo. Ganera, paperekoa paperean geratuten da eta bertsoa bota egiten dozu, gaur egun grabetako aukerea egon arren.

Zuzenketa asko egin al dozu argitaratu baino lehen?

Pilo bat. Entregau neban gehiago ezin zalako luzatu. Bestela... itxi izan baeus-tien... oraindik aldaketak egiten egongo nintzateke. (barreak)

Bertsolaritza eta eleberrigintza. Diferenteak bezain paretsuak.

Ez dira konparagarriak, egoteko modu diferente dira eta: bertsotan ohol-tza ganean egon ohi gara, zutunik, barrutik kanporako ariketea egiten. Idazkerean, oster, jarrita egon ohi gara, espazio itxi baten eta kanpotik barrurako ariketea egiten. Osagarriak izan daitezke, edo ez, goizetan pertsianak zabaldu eta kaleko argia bat-batean etxera sartzen iztea bezalakoa da. Erritmo ezbardineko ariketa oso diferenteak dira biak.

Larrabetzuko parekotasunik al dau Basan eraikitzen dozun baserri munda-gaz?

Bai, noski! Herri txikia da, bai, baina Basakoa hutsitzen ari dan herria dogu. Halan da be, herri hurbila dogu. Larrabetzuko herria baino uri handi baten kokatu beharko

baneban, seguruenik periferiako auzoan biziko zan Sabina, eta baserri-tarra barik harakina izango zan, esaterako.

Ezaguna da zuretzat Larrabetzu.

Bai, bertsoetatik eta Hori Baiko poteoetatik, baita Goikolexeagaitik be. Bertso, parranda eta lagunengaitik oso hurbila egiten jatan herria da. Malen Amenabar ilustratzaileagaz hartu-emonetan egoten naz eta beti esaten dogu Larrabetzun beti dagoala zeozer (barreak).

Aita ere Derion egondakoa da.

Betidanik kontatu deusku Seminarioko kontu ugari fantasia handiarekin (beti bezala) eta zuri-baltzean imajinatzen dot Derio. Amak eta aitak bertan ikasi eben eta txikitan behin baino gehiagotan ibili ginan hortik.

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Hurrengo lasterketarako prest



MIKEL VALLADARES BARRERA | atleta

Hamazazpi urteko lezamarra tximista baino azkarrago dabil pistan. Horrela, bada, harro dago bere markez: 1:57.02, 800 metroko lasterketan; eta 4:04.11, 1.500 metrokoan. Bizkorra da, kirolean nahiz bizitzan; eta saiatua. Itxura oneko etorkizuna dau atletismoan.

t/a: Itxaso Marina

Mikelek pozik baino pozago amaitu eban aurreko denporaldia: Euskadiko txapelduna izan zan 1.500 metroko lasterketan (pista estalia); Euskadiko bigarrena, 800 metroko lasterketan (aire zabala); eta Bizkaiko txapelduna, 400 metroko lasterketan (aire zabala). Ganera, Espainiako txapelketan be hartu eban parte: 10.a lotu zan 800 metroko lasterketan (pista estalia); eta 15.a, 1.500 metroko lasterketan. Emaizta horreek 18 urtez azpiko kategorian lortu ebazan, baina kategoria absolutuan be emaitza onak lortu ebazan: bosgarren amaitu eban Euskadiko 800 metroko lasterketan (pista estalia); eta

laz, Euskadiko txapelduna izan zan 1.500 metroko lasterketan (pista estalia)

zazpigarren Euskadiko 1.500 metroko lasterketan (aire zabala).

Hain fruitu onak izateko, gogor eta gogoz entrenatu behar dau. Astelehenetan indarra lantzen dau gimnasioan, eta eguaztenetan eta zapatuetan (lasterketarik ez badago) serieak egiten dauz, iraupena eta abiadura lantzeko. "Oso saio gogorak dira eta batzuetan zorabiatu be egiten naz. Baina, egia esan, gustatzen jat

sentsazio hori: entrenamendua amaitzen danean ondo sentitzen naz, hain zorrotza dan saioa amaitzeko gauza izan nazalako. Lasterketarako prest sentitzen naz". Bestalde, eguenetan teknika jorratzen dau, eta domeketan karra egitera urtetan dau bere kabuz.

Aurtengo denporaldia hasi berri da eta Mikelek are eta bizkorrago ibili beharko dau, kategoriaz aldatu da eta. "Hogei

Mikelek zientzien batxilergoa dabil ikasten eta aurtan bigarren maila hasi dau. Tristuraz esan deusku ikasketak dirala-eta kirola egiteari itxi behar izan deutson jentea ezagutzen daue-la. "Badakit gogorra izango dala biak buztartzea, baina ez neuke nire burua halako egoera baten ikusi gura. Atletismoa asko gustetan jat eta ez dot gura alde batera itxi. Ganera, Espainiako txapelketetara joateko aukera handiak dodaz. Beraz, ahaleginduko naz". Gakoa denporea ondo antolatzea da eta orain arte ederto moldatu da. "Ikastolatik etxera ailegatzen nazenean ikasi

Korrika, beti

ohi dot; gero entrenatzera, eta itzultzen nazenean jarraitzen dot ikasten. Denpora gehiago izaten dot asteburuetan". Lagunakaz egon eta gitarrea joteko tartea be badau. "Musikea ikasi dot eta gitarra klasikoa jotzen hasi nintzan; orain elektrikoa. Rock eta metal taldeen abestiak interpretaten doguz".

Batxilergoa amaitzen dauenean matematikari edo fisikari lotutako zerbait ikastea gustauko litxakio; eta, ondoren, horretan lan egitea. "Eta atletismoagaz ja-

urtez azpiko kategorian nago eta zailagoa da Espainiako txapelketetara sailkatzea; edozelan be, ahaleginduko naz". Pistan korrikalari azkarra dan arren, aitortu deusku krosa ez dala bere indargunea. "Pistako lasterketak baino lehen kros-proba bat dago. Kluben proba da eta kide guztion lana da garrantzitsua Espainiako txapelketetara joan ahal izateko. Ahalik eta ondoen egiten saiatuko naz. Nire ustez, talde ona dogu; ganera, taldekide barria dogu, triatloietan ibilia dana. Ea laguntzen deuskun!"

Karra egiten zortzi urtegaz hasi zan, aitagaz eta oporretan egozala. Hurrengo ikasturtean izena emon eban Galdakaoko klubean eta bertan jarraitzen dau gaur egun. Oraindik aitagaz urtetan da korrika egitera. Lasterketa baten 12 urte ebazala hartu eban parte estreinakoz, eta harrezkero erakutsi dau pistan azkartasuna eta trebezia dauzala. Espainiako txapelketa baten ibili zan lehenengo aldia etorri jako burura. "Orain dala urte bi izan zan. Hama sei urtez azpiko kategorian nenbilen eta 1.000 metroko lasterketea (pista estalia) egin neban. Finalera bakarrik bederatzi onenak doaz eta nik sailkatzea lortu neban. Zortzigarrena izan nintzan eta Espainiako rankingean lehenengo 10en artean egon nintzan. Oso ondo sentidu nintzan".

Bere buruaren kontra

Gustura dago Galdakaon, pozik. "Entrenatzaileari eta taldekide guztioi esker bagoaz helburuak betetzen. Alde bate-tik, entrenatzaileak oso entrenamendu egokiak eta pertsonalizatuak prestatzen dauz atleta bakotxarentzat; eta bestetik,

rraitzea, jakina! Atletismoaz bizitzea? Uf, hori ia ezinezkoa da: Espainiako onenatarikoa izan behar dozu, munduko txapelketetara joan, babesleak izan... Bestalde, beste kirol batzuetan baino askoz diru gitxiago irabazten da".

Atleten kirol-bizitzak 30 urte eta pikora arte iraun daike. Mikelek ahalik eta gehien aprobetxatuko dauz aurretik dauzan urteak. "Ahalegina egingo dot maila altuko lehiaketetan parte hartu ahal izateko; ondoren, horretarako nagusia nazenean, nire kabuz segiduko dot korrika egiten".



taldekideak entrenamenduetan batera gagozanez, bada, hobetzen laguntzen deusagu alkarri". Txorierrin atletismo klub bat, Beste Bira, sortu da orain gitxi, eta, Mikelen esanetan, albiste pozgarria da.

"Bizkaian ez dago zaletasun handirik eta klub gehiago egotea ona da, zaletasuna bultzatu eta handitzen dau eta".

Atletismoan korrikalaria bere burua- ren kontra dabil eta horrek hain zuzen be erakartzen dau gaztea. "Helburua ez da beste talde bati edo lehiakideei irabaztea, zeure marka hobetzea baino. Eta hori lortzen dozunean subidoia balitz bezalakoa da". Kirol arloan beti bere onena emoten ahaleginduko dala esan deusku, eta kategorian guztietan saiatuko dala Estatu mailako txapelketetara joaten. Halanda be, badaki gero eta gatzagoa izango dala. "Inoz Espainiako txapelketetan kategorian absolutuan parte hartzea gustauko litxakit". Orain arte txapelketetan topau dauzan korrikalaririk onenak Gaztela eta Leonekoak, Kataluniakoak eta Andaluziakoak izan dira, eta atleta kutun bi dauz: Adel Mechaal katalana eta Jakob norvegiar gaztea. Biak munduko onenatarikoen artean dagoz. Berak be Olinpiadetara joatea amestu dau inoz. "Uf, baina hori bai dala gatzak!". Bitartean, arrakasta handia lortzen jarraituko dau Euskal Herriko zein Espainiako pistetan.



Unitzaga Ibaita Kalea, 1
48190 - DEPIO | Tel.: 94 403 40 50 | info@txorierrri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierrri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari



Txorierriko Ekintzailtza eta Enplegu Eguna, urriaren 24an

Txorierriko Ekintzailtza eta Enplegu Eguna urriaren 24an izango da Derioko Kultur Birikan eta arreta berezia jarriko du ekintzailtzan. Horrela, hainbat ekintzaile izango dira bertan, haien esperientziak partekatu eta bertaratuen zalantzak argitzeko. Ekimena Txorierriko Enplegu eta Garapen Ekonomikoko Zerbitzuak (EGAZ Txorierrri) antolatzen du, Mankomunitateko Gazteria Zerbitzuarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Ekimenak lan bila dabiltzan edo haien ibilbide profesionalaren norabidea aldatzeari buruzko informazioa jaso nahi duten gazteei enpresa-ekimenak sortzeko apustua egin duten pertsonen esperientziak hurbiltzea du helburu.

Horretarako, beste ekintza batzuekin batera, Kultur Birikan hainbat hitzaldi antolatuko dira, "Pecha Kutxa" formatuan: hizlariak 20 irudi aurkeztu eta bakoitza azaltzeko hogeina segundo izango dituzte, beren ekintzailtza-esperientzia partekatuzko. Gainera, gune lasai bat ere egongo da eta ekintzaileek bilerak egingo dituzte bertan ekintzaile izateko interesa duten gazteekin, aurretik hitzordua hartuta. Beren esperientzia kontatuko diete gazteei, baita zalantzak argitu ere.

Hainbat ekintzailek beren esperientziei buruz hitz egingo dute eta zalantzak argituko dituzte





Txorierritarrok jarduera fisiko gehiago egingo dugu Mugi ekimenari esker

Horietatik % 53,7 gizonezkoak izan dira; eta % 46,3, emakumezkoak; eta beren batezbesteko adina 57,9 urtekoa izan da. Programari esker, parte-hartzaileen % 70,4k jarduera fisiko gehiago egin dute; hala, inaktibo izatetik aktibo izatera pasatu dira. Hau da, ekimenak jarduera fisikorako zaletasuna piztu du. Jarduera fisikoa neurtzeko, METa –Atsedun-unitate metabolikoa– erabiltzen da. Horrek oxigeno-kontsumoa neurtzen du, ariketaren intentsitatea eta egoneko kontsumoa erlazionatuz. Horren arabera, Mugi ekimenaren erabiltzaileek egiten duten jarduera fisikoaren kantitatea astean 856 MET-min areagotu da, batez beste.

Oro har, erabiltzaileek intentsitate ertaineko jarduerak egin dituzte eta, batez ere, astero oinez ibiltzen diren denbora areagotu dute. Gainera, hainbat pertsona intentsitate handiko jarduerak hasi dira egiten (adibidez, indar-entrenamendua); aurretik, erabiltzaile batek ere ez zuen era horretako jarduerarik egiten. Oro har, parte-hartzaileen ehuneko handi batek adierazi du jarduera fisikoareki-

Egitasmoaren lehenengo sei hilabete eta erdian, Mugi Txorierri –Txorierriko Mankomunitateko Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzuak– orientazio pertsonalizatua eskaini die 57 pertsonari.

Programak jarduera eguneroko bizitzako ohitura bihurtzen lagundu du, baita gai horrekiko duten interesa areagotu ere

ko interes handiagoa duela, neurri handi batean programari esker.

Zerbitzuaren hartzaileak arrisku kardiobaskularreko arrisku-faktore bi edo gehiago zituzten eta bizimodu sedentarioa zeramaten 40-75 urte arteko pertsonak ziren, eta medikuak aginduta

bertaratu dira zerbitzura. Hain zuzen ere, jarduera fisikoaren falta da arrisku kardiobaskularrerako faktorerik garrantzitsuenetakoa bat. Hori dela eta, programak taldeko tailerrak ditu, hainbat ariketa egiten ikasteko; gainera, orientazio pertsonalizatua eskaintzen du kasu bakoitzean gehien komeni den jarduera mota zehazteko, baita bizimodu aktiboagoa izateko eskura dauden udal-baliabideen berri emateko ere.

Mugi Txorierri programa modu koordinatuan egin da, eta hauek hartu dute parte bertan: Osakidetza, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Txorierriko Udaletako teknikariak, Mankomunitateko teknikariak eta Mugiment (bizimodu aktiboa sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren proiektua) programako idazkari teknikoak.



"Ondo sentiduten gara presoen arazoari ekarpen kolektiboa egin deusagulako"

Irailean, 11/13 sumarioko auziko epaiketa hasi eta bukatu zan Madrilan. Fiskalak eta abokatuak hitzarmena egin eben, eta akusatuek leporatzen jakezan delituak onartu ostean, kartzela-zigor txikiak ezarri eutseezan. Ibon Meñika eta Nagore Lopez de Luzuriaga zamudioztarrak eta Naia Zuriarrain larrabetzuarra ez ebezan azkenean espetxeratu.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Jon Goikouria

"Nekatuta gagoz, batez be, azken egun honeek oso gogorrak izan diralako. Baina, aldi berean, ondo sentiduten gara preso eta iheslarien arazoari ekarpen kolektiboa egin deusagulako", dino Ibon Meñikak. Guztira, 47 lagun epaitu ziran 11/13 makrosumarioko auzian, eta hatako hiruk hartu-emon estua dabe bailareagaz: Ibon Zamudion jaio zan; Nagore Lopez de Luzuriaga arabarra Ibonen herrian bizi da; eta Naia Zuriarrain bilbotarra, Larrabetzun.

Hasikera batean, Fiskaltzak zortzi urtetik 20 urtera bitarteko espetxe-zigorrek eskatu ebazan. Akusatuak euskal presoan aldeko zenbait alkartetan ebiltzan (Herri-
ra, Jaiki Adi eta Etxerat). Ganera, abokatuak eta bitartekariak be badira auzipetuen artean. Guztiei ETA erakundearen kideak izatea leporatzen eutsien. Halanda be, guztiak gelditu ziran aske, Arantza Zulueta eta Jon Enparantza abokatuak izan

ezik. Eurek bost hilabete gehiago emon beharko dabez kartzelan.

Gainerakoek espetxea saihestu dabe, baina zigorrak eukiko dabez: guztiek, inhabilitazioak; batzuek lana galduko dabe, arlo publikoan jarduten dabelako; beste batzuek betiko galduko dabe lanpostu publikoetarako lortutako plaza. "Azpimarratu gura dogu erabagi kolektiboa izan dala, bakotzak eretxi propioak euki arren. Horrek kostu pertsonala eragin dau: aurrekari penalak betiko eukiko doguz, baita kriminalizazio-marka be. Prozesu judizialak sei urte iraun dau eta bizi izan dogun egoera gatxa izan da: bizitza baldintzatuta, espetxe-zigorraren mehatxupean...".

Epaiketa anakronikoa

Ibonen eretxiz, "zigorrak ez datoz bat gaur egungo egoereagaz" eta hori da larriena. "Estaduko hainbat eragilek herri honetan ezer aldatuko ez balitz moduan jarraitzen dabe. Zergatik? Herri honetan



2012tik 2019ra bitartean ez da ezer aldatu, ala? Euskal Herriko errealidade sozial, politiko eta instituzionala erabat desbardina da, baina... Horregatik uste dogu epaiketak zentzurik ez dauala. Zelan izango gara ETako kideak, ETA 2012an desagertu bazan? Hori objektiboa da. Epaiketaren anakronismoaren adibiderik argiena da, hain zuzen be: denboraz eta lekuz kanpo egon da, argi eta garbi".

Auzitegi Nazionalak epaitu dau auzia, baina auzipetuek ez dabe horrengan konfiantza handirik. "Bertan justizia lortzerik ez dagoala jakin badakigu. Euskal gizarteak guztiz barneratuta dau hori. Urteetako errealidadeak holan erakutsi deusku. Badakit gogorra dala: kezagarria da Estadu demokratiko batean justiziarik ez dagoala onartzea. Nik hori aitatu dot komunikabideetan eta inork ez dau kereilarik

ERREKA
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

RADIO TAXI FEMADE Zure taxi, Teorienikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:

www.taxiaerropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE



*"Azpimarratu gura
dogu erabagi kolektiboa
izan dala, baktaxak
eretxi propioak
euki arren"*

*"Ez dot epaiketarik ezer
onik atera. Herri honek
aurrera begiratu gura
badau, karpeta hori
itxi behar dau"*

aurkeztu nire kontra. Beraz, galdera hau da: noz amaituko dau Auzitegi Nazionalak gure bizitza baldintzatzen?"

11/13 sumarioko auziko epaiketa ETaren inguruko azken makroprozesua izango da. Azken epaiketa ez, aldiz. Izan be, Naia beste behin epaituko dabe beste lagunak batera. Ibon lehenengo eta azken makroprozesuaren lekukoa dugu. "Bi sumarioetan auzipetu ninduen, bai. Eta penaz dinot, ez harrotasunez. Hatatik ez dot ezer onik atera, sufrimendua besterik ez. Eta zertarako? Herri honek aurrera begiratu gura badau, karpeta hori itxi behar dau".

Meñikak etorkizunari buruz berba egin gura dau. "Noz eta 2019an oraindik herri honek aspalditik dakarren sufrimendua eta arazoak konpondu barik dagoz. Epaiketa honek argi eta garbi adierazoten dau arazoa konpontzeko asmorik eza. Gehiago oraindik, arazoa konpondu beharrean, sufrimendua handitzen dau. Gu, barriz, sufrimendu hori gainditzeko ekarpena egiten ahalegindu gara. Espe-txeak husteko erronka soziala daukagu eta gu espetxeratu ez izanak motibazioa emon behar deusku".

Epaiketa amaitu da, baina Ibonen berbetan, arazoa konpondu barik dago. "Guk jasotako alkatasuna interbidea topatzeko erabili gurako geunke. Guk uste dogu agenda jarri behar dala martxan, euskal preso eta iheslarien egoera konpontzeko. Guk euki dogun epaiketa ez zan egongo, 250 preso egon ez balitzaz. Zikloa amaitu behar da, hurrengo belaunaldiak guk pairatutakoa ez dagien jasan".

Txorierriko auzipetuak

IBON MEÑIKA (Zamudio, 1977)

Herrira alkarteko kidea. Herrira euskal presoan eta iheslarien egoera konpontzeko sortu zan 2012an. 2013an atxilotu eben. Epaiketa horren aurretik, bitan atxilotu dabe: 2003an, Jarrai alkarteko kidea izateagatik; eta 2006an, ETA "finantzatzeko bonu" batzuegatik. Guz-tira, sei urte emon dauz kartzelan.

Egotzitako delitua: Erakunde terrorista baten parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Zigorrak: Urte biko espetxe zigorra. Gainera, urtebete emon beharko dau zaintzapeko askatasunean. Era berean, 4.500 euroko isuna ordaindu beharko dau eta hiru urteko inhabilitazio osoa dau, lan edo kargu publikorako.

NAIA ZURRIARAIN (Bilbo, 1977)

Bitartekaria, Euskal Preso Polikoen Kolektiboaren (EPPK) eta gizartearen artean. 2014an inputatu eben. Behin baino gehiagotan atxilotu dabe eta torturak jaso ebazala salatu eban. Bost urte

emon dauz kartzelan eta 04/08 sumarioan auzipetu eben. Halboka auziaren haritik be epaituko dabe.

Egotzitako delitua: Erakunde terroristaren batean laguntzea.

Zigorrak: Urte biko espetxe zigorra. Gainera, urtebete emon beharko dau zaintzapeko askatasunean. Era berean, 4.500 euroko isuna ordaindu beharko dau eta hiru urteko inhabilitazio osoa dau, lan edo kargu publikorako.

NAGORE LOPEZ DE LUZURIAGA

(Agurain, 1981)

Etixerat, Euskal presoan eta iheslarien senide eta lagunen alkarteko kidea. 2015ean atxilotu eben. Aurretik, urte bi emon ebazan kartzelan eta berak be torturak salatu ebazan.

Egotzitako delitua: Erakunde terroristaren batean parte hartzea.

Zigorrak: Urte eta erdiko espetxe zigorra. Era berean, hiru urteko inhabilitazio osoa dau, lan edo kargu publikorako.

Memoria gastronomikoaren jatorria

LARRABETZUKO ESKOLAKO JANTOKIA

Larrabetzuko Txinpasmendi guraso elkarteak 250 umeri bazkaltzen ematen die egunero, egunean berean sukaldatutako sasoiko osagai freskoekin. Txorierriko gainontzeko zentroek ez bezala, Larrabetzukoak catering enpresei barik kalitate handiko zerbitzuari eutsi dio, eredu agroekologiko justuaren aldeko apustua eginez. Proiektu aitzindaria dugu honako hau.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Ikasturte berriaren hasierarekin, martxan jarri ziren hilaren hasieran eskolen prestaketa lanak. Larrabetzuko eskolaren kasua, hala eta guztiz ere, berezi xamarra da. Eskola honen jantokiaren kudeaketa Txorierriko bereziena dugu, berez urteak daramatzalako catering enpresak kontratatzeari uko egiten.

Goizeko 08:00etan Larrabetzuko eskolako jantokiko makinaren motoreak eta suak piztu ondoren, eguneko menuko lehengaiak prestatzen hasten da Aitor Alvarez Gonzalez, Txinpasmendi guraso elkartearen sukaldaria. Berrehun eta berrogeita hamar umeri jaten emateaz arduratzen da erandioztarra, Bea Legina eta Arantza Hernandezen laguntzarekin. Hirurogeita bi patata tortilla prestatzen hasi da 10:10ean: "Sukaldaritzan denbora funtsezkoa da. Catering hornitzaileek, kasurik onenean, 05:00etan egiten dituzte eta osagaiak izoztuak izaten dira, nutriente guztiak galduta", adierazi du sukaldari buruak. Egunean 250 pertsonak bazkalduko duten janaria 12:00etarako prest egon behar da bero zerbitzatzeko: "Larrabetzuko eskolako umeek janari egin berria bazkaltzen dute", azaldu du irribarretsu sukaldariak.

Txinpasmendira heldu zenean hainbat aldaketa proposatu zituen Alvarezek jantokiko dinamikan: produktu batzuk aldatu, bestelako hornitzaileak aukeratu, eta ohitura berrien aldeko apustua egin zuen. "Produktu freskoak, sasoikoak eta horietako asko bertokoak erosten ditugu: bertoko bazkariak ez du zerikusirik aldeztu aurretik prestatutakoarekin".

Helburu sendoak

Jantokiaren helburu nagusia zerbitzu ahalik eta onena eskaintzea da, osasuna

"Dieta orekatua eta osasuntsua eskaintzen dugu, gure seme-alabei ongizatea bermatuz"

"Urteko gastuaren % 80 herrian geratzen da, erosketen eta langileen soldaten artean"

"Kuota 4,72 eurora igo behar izan dute guraso elkarteak aurten"

nutrizioa ardatz nagusiak izanik. "Dieta orekatua eta osasungarria eskaintzen dugu tradiziozko elikaduran oinarritutakoa, gure seme-alabei ongizatea bermatuz", azaldu du Aner Gorostiola Txinpasmendiko kideak. "Beste helburu bat hezkuntzan oinarritzen da, jantokiko zerbitzua eskolako proiektuan txertatzen saiatzen garelako". Azken helburua erantzukizun ekonomikoa dugu, jantokiko gastuak tokiko merkataritza eta inguruko lehen sektorea sustatzen duelako: Gurpide Baserritar Elkartearen tomateak eta barazkiak, Elorriaga harategia, Koloretakoak

frutadenda, Aspuru arraultzak, Sarrikola ogitegia, Aliprox supermerkatua... Horrela jantokia tokiko ekonomiaren eragile garrantzitsua bilakatu da: urteko gastuaren % 80 herrian geratzen da, erosketen eta langileen soldaten artean.

Bizkaitik kanpoko lehengaiak ere badituzte, Alcaravan arroza (Nafarroa), Fortaleny mandarinak eta zuku-laranjak (Valentzia) eta Kordobako oliba-olio birjina estra, esaterako. Beraz, eredu agroekologikoa eta justua da, bitartekari gutxi dituztelako, lehengaiak hornitzailei zuzenean erosten dizkiete eta.

1978an jaio zen Txinpasmendi guraso elkarteak, eta lehen pausoak Larrabetzuko eskolarekin eman zituen: jantokia modu partzialean kudeatzen egon zen 2008ra arte. "Proiektua eredu iraunkorra, osasuntsua eta parte-hartzailea da" azaldu du Gorostiolak. Horrek erreleboa hartu zien Ekaitzi eta Xabiri, guraso elkartearen kide ohiak.

2000ko martxoaren 22an EAEko jantokiak arautzeko agindua argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Agindua bete ez zuten zentroak dirulaguntza barik geratu ziren: "2000. urteko lege hura ez onartzearen ondorio larriena catering enpresek euren zerbitzua emateagatik jasotzen duten dirulaguntza ukatzea izan da", adierazi du. "Eusko Jaurlaritzaren arabera, egun bateko menuaren kostuaren % 65 familiek ordaintzen dute, eta beste % 35 Eusko Jaurlaritzak berak ordaintzen die catering enpresei dirulaguntzen bidez". Horixe da Erandioko Altxaga ikastolaren kasua: "Zentroak berez sukalde propioa dauka, eta jantokia guraso elkarteak kudeatu arren (administrazio-kudeaketa), jantoki zerbitzua Gasca enpresaren bidez egiten dugu" azaldu du Juan Maria Ros ikastolaren zuzendariak.



*“Haurrak jankide
zailenatarikoak dira,
batez ere eskolako
jantokietan”*

*“Dietistak eta gurasoek
bat egin zuten menu
orekatu eta erakargarria
eratuz, ume askok beldur
diotelako jantokiari”*

*“Haurrak poz-pozik
etortzen dira jantokira
eta etxean kontatzen
dute zer bazkaldu duten”*

*“Laukiz, Markina, Urduña
eta Gernikako eskolak
aitzindariak dira. Urte bi
daramatzate proiektu
pilotuak martxan jartzen”*



Larrabetzuren kasuan ez dago inolako azpikontrataziorik. “2008tik gaur arte jantokiaren kudeaketa osoa daramagu elkartekook: lehengaien kontratazioa, erosketak, sukaldearen mantenua, begiraleen kudeaketa, sor daitezken matxuren konponketak...” azaldu du Gorostiolak. “Azken bolada honetan eskertzekoa da Larrabetzuko Udalaren laguntza: sukaldeko tresnaren bat matxuratzen denean konponketak egiten dizkigu eta benetan eskertzekoa da”. Guztira 13 pertsonak egiten dute lan jantokian: sukaldaritzan hiru

pertsonak osatutako taldea eta hamar begiralez osatutakoa. Horiez gain, Saioa Vidalek proiektuaren kontuak daramatza. Kideen elkarlanaren bidez posible da jantoki osoaren kudeaketa.

2017/2018 ikasturtera arte menu bakoitzaren prezioa 4,60 eurokoa zen, baina denborak aurrera egin ahala proiektua mantentzea garestituz joan da: langileen soldatak, lehengaien prezioak, konponketa jakin batzuen kontratazioa... Ikasturte honetan, kuota 4,72 eurora igo behar izan dute guraso elkartekoei, eta 190.000 euro inguruko aurrekontua dute ikasturte osoari aurre egiteko.

Jankide zorrotzenak, epaile

Barazkiak, lekaleak eta zerealak lehenesten ditu Txinpasmendiren sukaldeak, lehengai horiek ia plater guztien osagarri nagusiak izanik. “Haurrak jankide zailenatarikoak dira, batez ere eskolako jantokietan” adierazi du sukaldari buruak irribarretsu. “Menu proposamena egin genuenean eskolako dietistak eta gurasoek bat egin zuten menu orekatu eta erakargarria eratuz, ume askok beldur itzela diotelako jantokiari”.

Astean behin umeek oso gogoko duten platera prestatzen dute Txinpasmendikoei: pizzak, sanjakoboak, kroketak, hamburgeresak... “Haurrak poz-pozik etortzen dira jantokira eta etxean kontatzen dute zer bazkaldu duten” azaldu du. Elkarriketaren erdian ume bat sartu da





eskolako sukaldean, eguneko menuaz galdezka. Pizza naturala oso miretsia da. Goizeko 9etan ogi-masa ekartzen dute eskolara. Sukaldariak masa zabaldu, eta tomate fondo naturala prestatzen du,

urdaiazpiko egosia, hirugiharra eta mozzarella bezalako osagai naturalekin.

Jan baino lehen, bazkarien propietate organoleptikoek (begitik sartzen zaizkigunak) funtsezko papera jokatzen dute

gizakiongan: usaina, itxura eta zaporea. "Eskolan dauden bitartean umeak ez dira propietate horietaz jabetzen, baina eskola bukatu eta bestelako bazkariak dastatzen dituztenean konturatzen dira, gure gorputzak memoria gastronomikoa du eta", aipatu du.

Gaur egun badira Larrabetzura hurbildu diren eskola ugari, Txinpasmendik darabilen ereduaz galdezka, jakin-mina piztu zaiela eta. Eneko Atxa sukaldariari ere jakin-mina piztu zitzaion eta pasa den urtean bisita egin zioten Txinpasmendikoek: "Aurten ere beragaz zeozter prestatzeko asmoa dugu".

Momentu honetan Laukiz, Markina, Urduña eta Gernikako eskolak aitzindariak dira esparru honetan. Urte bi daramatzate Larrabetzuko jantokiaren antzeko proiektu pilotuak martxan jartzen euren eskoletan, eta horiek esleitu bezain pronto Larrabetzuko aurkeztuko dute Eusko Jaurlaritzan: "Proposamen berri hauek ohiko markotik irteten diren proiektu interesgarriak ditugu eta Eusko Jaurlaritzak ez du batere erraz jartzen", adierazi dute kideek.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRAKO UDAL
EUSKALTEGIA



2019-20 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

ZURE ZAIN GAUDE!!!
HURBIL ZAITEZ GURERA!!!

Euskararekin
Match!



Herriko Plaza, 3 - DERIO ☎ Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 🌐 euskaltegia@txorierr.eu

55 urte auzoa koloreztatzen

San Migel jaiei irailaren 27an eman zieten hasiera, eta jai-batzordeko kideek plaza kolorez jantziko dute urriaren 6ra arte. Programazioak aldaketa erraldoirik egiteko beharrik ez du jai hauetako publikoa alaitzeko, ekitaldi ugari antolatuko dira-eta jai-batzordearen 55. urteurrenean.

a: Jai-batzordea

Derioko jai berezi hauetako batzordeak 55 urte bete ditu aurten. "Denborak aurrera egin ahala programazioak aldaketa gutxi izan ditu, jendeari gustatzen zaion hori eskaintzen dugulako" adierazi du Olatz Santiagok, jai batzordeko kideak.

Aurtengo kartelean, zirkua jaietako protagonista dugu. "Jende ugari batzen da plazan eta oso polita eta alaia da jendea kaleetan moztortuta ikustea", adierazi du kideak. Bestalde eta hirugarren urtez, Sara Macarrilla eta Mikel Eguia izango ditugu dantzan: "Lagunak ez ezik San Migel plazakoak ere badira eta oso egokia iruditzen zaigu euren parte-hartzea. Dantza-erakustaldiaz gainera dantza eskola txikia antolatuko dute. Jendeari izugarri gustatzen zaio eta plaza beti dago leporaino beraiekin".

"Gure jaiek lau oinarri dituzte: udala, dendak, konpartsak eta derioztarrak", adierazi du Santiagok, eta horietako bakoitzak ahal duena eskaintzen du. "Batzuek dirua eskaintzen dute, beste batzuek, ordea, maitasuna eta atxikimen-

dua". Konpartsek garrantzi izugarria dutela adierazi du gazteak, "hainbat ekin-tza antolatzen dituztelako eta euren laguntza barik ez legoke jairik".

Aire berriak

Gaur egun 20-30 urte bitarteko 13 kidek osatzen dute San Migel jaietako batzordea, eta etengabe ideia berrien bila dabilta. "Jende berriaren eske gabilta batez ere ideia berriak proposatzeko. Gaur egun gazteak bizi dira San Migel auzoan, baina belaunaldi ezberdinen artean tarte handiegia dagoela aipatu du jai-batzordeko kideak, gaurko gazteak gazteegiak direla azalduta.

"Gure jaiek lau oinarri dituzte: Udala, dendak, konpartsak eta derioztarrak"

Azken hamarkada hauetan denarik ikusi dute jai-batzordekoek: "Berrogeita hamabost urte igaro dira batzordea jaio zenetik eta oso garrantzitsua da guretzat, urte onak eta urte gaxak bizi izan ditugulako". Jaiak desagertzeko zorian egon diren arren, aurrera egiten jakin dute antolatzaileek: urteroko bazkarian 900 lagun inguru biltzen dira San Migel plazan, eta benetan hunkigarria eta esanguratsua dela aitortu du Santiagok. "Jaiak amaitzean jendea hurreratu egiten zaigu iritzia ematera eta kritika guztiak aintzat hartzen ditugu, hurrengo urteetan antolaketa hobetzeko. Jendearen ekarpena ongietorria da beti".

"Jende berriaren eske gabilta, ideia berriak proposatzeko batez ere"



Urriak 3, eguna

–18:00 Umeentzako arratsaldea: jo-lasak... Ondoren, marrazki lehiaketa, umeentzat.

Urriak 4, barikua

–19:00 Kirol dantza erakustaldia, Mikel Egia eta Sara Macarrillaren eskutik.

–20:00 Txorizoa sagardo-puntuarekin. Hor Konpon konpartsaren eskutik eta Haizea tabernak babestua.

–22:30 Gabon zaharrari hasiera ematea. Aurten, 80. hamarkadako New Yorkeko "Studio 54" diskotekan girotua. Pintxo berezia, Beste Bar konpartsak egina, eta Beheko Tabernak, Akelarrek eta Com&Cop-ek babestua.

–00:00 Sorpresak, kanpai-hotsak eta musika. Ondoren, Dj Porty.



Jai-egitaraua

Urriak 5, zapatua

- 09:00-14:00 "Julio Garitano" areto-futbol txapelketa
- 10:00 Goizeko traka.
- 14:00 Indaba-jana. Txirimiri konpartsak egina eta Txapas eta Sugoi Byron taberne eta jai-batzordeak babes-tua. Ogia, Tahona Uriberen eskutik.
- 15:00 Postrea. La Kuadrilla konpartsak egina eta Irrintzi, Akelarre eta Jai-batzordeak babestua. Prezioa: 4 euro.
- 16:00 Bingo berezia.
- 20:00 Umeen mozzorro lehiaketa.
- 21:00 Nagusien mozzorro lehiaketa.

- 00:30 Berbena, Vulkano orkestrarekin.
- 04:30 Dj Porty

Urriak 6, domeka

- 10:00 Goizeko traka.
- 13:00 Iparralde abesbatza.
- Bermuta, Trotatxosnak konpartsak eginda eta babestuta.
- 15:30 Jai-batzordearen bazkaria.
- 17:30 Bat, bi, hiru, erantzun berriro jokoa, konpartsen artean.
- 19:00 Jaietako argazkiak eta bideoak proiektatzea.
- 20:30 Sariak banatzea.
- 19:30 Txokolatada, Lancho Iturgintzak eta Mendez Itzurgintzak babestua.
- 20:00 Sariak banatzea eta jai amaiera berezia.

ikastegi homologatua
**LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA**

MATRIKULA ZABALIK

Errebale, 7 behea
94 455 70 66

**ARINKA
KASTEGIA**
Goiko kalea, 6 DERIO

LH – DBH – BATX.
INGELES
MARRAZKETA
ERROBOTIKA

TAILERRAK eta
ESKOLA LAGUNTZA

**944 544 753
695 78 77 74**

www.arinkakopidenda.com
arinkaikastegia.blogspot.com

**OAKLAND
ENGLISH**
LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

**MAILA GUZTIAK
ADVANCED IN ENGLISH
FIRST CERTIFICATE
HIZKUNTZA ESKOLA
BUSINESS ENGLISH
BATXILERGOA
D.B.H.**



Iran, ikustekoa

t/a: Jon Ander Rola


Martxoan erabaki genuen oporretan Iranera joatea, eta ondoren ile laranjadunak bazterrak nahasten hasi eta bidaia kinka larrian jarri arren, azkenean egin dugu.

Agentziakoak esan zigun Iraneko bidaia ikusgarria zela, eta benetan hori izan da bidaia definitu duen hitza. Ikusgarriak dira hiriak, monumentuak, paisaiak, basamortua, historia, ohiturak, mendiak eta batez ere pertsonak: beti irribarrez, zurekin hitz egiteko gogoarekin, haien

etxeetako atea zabalduz... Gainera, oso herrialde segurua da.

Baina, esandako guztia egia bada ere, ez ditut zuritu nahi islamiar errepublikak gauzatzen dituen eskubide sozial eta politikoen urraketak, eta batez ere emakumeen kasuan (gizonen menpe egotea, beloa edo *hijab*-a derrigorrean eraman behar izatea...). Hala ere, azken aldiotan, egoera horren aurkako emakumeen mugimenduak sortu direla ere ikusi genuen: #whitewednesdays (asteazken zuriak) kanpaina, esaterako, *hijab*-a derrigorrean erabili behar izatearen aurkakoa da.





Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1
Talde txikiak eta giro ona.
Eskarmentu handiko irakasleak
Herrian bertan ikasteko aukera
Autoikaskuntza
Online-ikastaroak

Matrikula zabalik, irailaren 27ra arte
Gorbea kalea 5, behea, Derio
94 454 39 67 / 607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

HABE Bizkaiko Aldundia Txorierriko Larraitzeko
Mankomunitatea Udala

Zu hemen zaude,
AEK ere bai



EUSKARA- IKASTAROAK

Herria, euskararen altzoan



Altzora Sondikako euskara elkarteak Altzora Eguna ospatu zuen irailaren 21ean. Ohikoa den moduan, giro ederra egon zen egun osoan zehar eta herriko elkarteek ere ekarpena egin zioten jaiari. Laguntza hori ezinbesteko dute euskara elkarteek: “Oso garrantzitsutzat jotzen dugu egun hau gainerako sondikoztarrekin pasatzea”, adierazi dute.

Egitarau zabala antolatu zuten. Goizean, hegaztien erakustaldia egon zen Ikurrinaren plazan. “Orain dela urte batzuk hasi ginen ekitaldia antolatzen eta oso harrrera ona izan ohi du; erakustaldi ederra

da”. Ondoren, *Nire gorputza* da *flash mob*-a egin zen Garrasia talde feministaren eta Gorondagane guraso elkartearen eskutik.

Dantza-poteoaren ostean, 300 lagun inguru batu ziren herri-bazkarian, eta arratsaldean herritar gehiago hurbildu ziren Altzora Egunerako. Taberna Ibiltariak dantzan ipini zituen guztiak. Euskara elkarteek herriko elkarten eta taldeen laguntza eskatu dute. Aurreko lefroetan aipatutakoez gainera, hauek ere ekarri dituzte gogora: Ipar-Elaiak txistu taldea, Gorantzaileak dantza taldea, Hegalariak areto-futbol taldea, Txuma Olagüe abes-

batza, Pentagrama akordeoi elkarte eta Sondikako futbol taldea. “Egia esan, herriko elkarteek oso ekarpen garrantzitsua egiten diote ospakizunari. Hasiera-hasieratik oso ondo erantzun diote gurekin Altzora Eguna ospatzeko proposamenari”.

Altzorak Sondikan euskara zabaltzea du helburu, eta hizkuntza eguneroko bizitzarekin lotzea. “Giro euskalduna sortu nahi dugu; euskaraz bizi, azken batean”. Xedeari beste behin heldu diote, izan ere, sondikoztarrak euskararen inguruan batu dituzte Altzora Egunean; euskararen altzoan, hain zuzen ere”.

Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orrri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, beheka - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dituz. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuak eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo behar duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEKA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna 3

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69



KRACHI

Goitioltza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Berteko produktua

Talleri, 5
48170 Zamudio
94 685 05 85



LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Txorierriko Udalen diru-gastuak

Udalek kudeatzen dituzten diru-kontuen artean gastuak zehatzea da beren zereginik garrantzitsuenak. Diru-gastuak bederatzi kontu-kapituluk osatzen dituzte hiru multzo nagusitan banatuta: gastu arruntak, kapital-gastuak eta finantza-gastuak. Txorierriko Udalek 2000-2017 epealdian izan duten norabidea erakusteko, gastu absolutuak herriz herri adierazi dira grafikoetan; eta erlatiboak, taulan.

GASTU ARRUNTAK OHIKO FUNTZIONAMENDURAKOAK		KAPITAL-GASTUAK INBERTSIO-GASTUETAN OINARRITUAK		FINANTZA-GASTUAK BANKETXEKIN. ADMINISTRAZIOAREKIN	
% 68,1		% 30,4		% 1,1	
1 - PERTSONAL-GASTUAK % 18		6 - INBERTSIOAK % 30		8 - FINANTZA AKTIBOAK % 0,1	
-GOI-KARGUDUNAK % 8		-AZPIGITURETAN % 64		-EPE LABURREKO AURRERAKINAK % 30	
-FUNTZIONARIOAK % 56		-FUNTZIONAMENDUETAN % 26		-EPE LUZEKO AURRERAKINAK % 60	
-LANGILE LAN-KONTRATUDUNAK % 13		-IMMATERIALEKOETAN %4,2		-AKZIOAK ESKURATZEA % 10	
-GAINERAKO LANGILEAK % 1		-ERAKUNDE PUBLIKOETAN % 5,2		9 - FINANTZA PASIBOAK % 1	
-GIZARTE-SEGURANTZAKO KUOTAK % 22		-HERRI ONDASUNETAN % 0,4		AMORTIZAZIOAK	
2 - ZERBITZUAK ETA MANTENTZE-LANAK % 30		7 - TRANSFERENTZIAK % 0,4		-EPE LUZEKO ZORRA % 39	
-ERRENTAMENDUAK % 1		-LURRALDE HISTORIKOARI % 24		-EPE LUZEKO MAILEGUA % 61	
-KONPONKETAK %18		-UDALERRIARI % 33			
-MATERIALA ETA HORNIKUNTZAK % 78		-ENPRESEI % 2			
-KALTE-ORDAINAK % 3		-FAMILIEI ETA ERAKUNDEEI % 37			
3 - MAILEGU INTERESAK % 0,1		-KANPORA % 4			
-EPE LABUR ETA LUZEKOAK % 86					
-GORDAILUAK, FIDANTZAKOAK % 14					
4 - TRANSFERENTZIAK % 2					
-MANKOMUNITATEARI % 72					
-UDAL ERAKUNDEEI % 6					
-ENPRESEI % 1					
-FAMILIEI ETA ERAKUNDEEI % 20					
-KANPORA % 0,3					
5 - EZUSTEKO KREDITUA % 0,0					
GASTU EZ FINANTZARIOAK: % 98,5				GASTU FINANTZARIOAK: % 1,1	

t: Jose Luis Barrenetxea / iturria: Udalnet eta Eustat

Gastu arruntak. Taulan ikus daitekeen bezala, garrantzi ekonomiko nagusia dute, eta kapitulu garrantzitsuenak mantentze-lanak, transferentziak eta pertsonal-gastuak dira. Bestalde, azpiatalen artean hauek nabarmentzen dira: materiala eta hornikuntzak, Mankomunitatea eta funtzionarioak.

Lehenengo grafikoak islatzen duen moduan, gastu arruntek goranzko joera izan dute 2008-2010era arte, baina gerora edo mantendu edo beherantz egin dute. Grafikoan, herri bakoitzeko urtez urteko norabidea, maximoa, minimoa eta epealdiko batez besteko zifrak agertzen dira.

Kapital-gastuen guztizkoaren % 98 inbertsioetan erabiltzen da. Taulan agertzen den moduan, batez ere azpiegitu-

retan eta funtzionamendurako inbertitzen da. Bigarren grafikoak 2009ra arte izan den goranzko joera adierazten du, eta geroko jaitziera bizkorra ere bai: Txorierrik 69,3 milioi euro inbertitu zituen 2004-2008 epealdian; 17,6 milioi, 2013tik 2017ra bitartean. Grafikoan, urteroko joera, epealdiko gastuak eta maximoak azaltzen dira.


Finantza-gastuak. Hauek askoz txikiagoak dira eta amortizazioetan oinarritzen dira. Aurrerakinak eta fidantzak sartu gabe, hirugarren grafikoak gastu hau erakusten du. Bertan, epealdiko amortizazioen guztizkoak eta maximoak jaso dira.

Urte oparoak eta urriak. Laugarren grafikoan gastu arruntak, kapital-gastuak eta gastuen guztizkoa azaltzen dira lehenengo eta milioietan adierazita. Hirurak euro konstanteetan daude, hau da, infla-


zioaren arabera. Finantza-gastuei dagokienez, amortizazioez gain (inflazioa kontuan hartu barik), aurrerakinak, fidantzak eta akzioak erostea ere sartu dira. 2012ko eta 2013ko kopuru altuak 2010ean Deriok jasotako zorra eta maileguaren kitapena dira. Bestetik, 2012an eta 2013an kopuru altuak daude, Deriok 2010ean egindako zorra eta mailegua kitatu egin zituelako.

2000-2017 epealdi osoari erreparatu-ta, diru-sarrerekin gertatu zen moduan, esan dezakegu gastuak 2011ra arte mantendu egin direla, eta geroko jaitziera kapital-gastuetako inbertsioen jaitziera eragin duela. Urte horietan, udalak behin behineko beharrei erantzuten ahalegindu dira. Azkenik, sarrerak eta gastuak alderatuz gero, esan daiteke 2008ra arte superabita egon dela; 2009tik 2013ra, defizita; eta 2014tik 2017ra, berriro superabita.


GASTU ARRUNTAK: LANGILEAK – MANTENTZE-LANAK ETA ZERBITZUAK – INTERESAK – TRANSFERENTZIAK




KAPITAL-GASTUAK: INBERTSIOAK (% 99) TRANSFERENTZIAK (% 1) 2000tik 2017ra M MILIOIAK



FINANTZA PASIBOAK. MAILEGUEN AMORTIZAZIOAK 2000tik 2017ra M MILIOIAK; M MILAK



GASTUAK: GUZTIRA – ARRUNTAK – KAPITAL-GASTUAK – FINANTZA-GASTUAK



Txorierriko abeslari, musikari eta dantzariak Baserri Antzokian

t: Baserri Antzokia Fundazioa

Paradoxa ederra da. Euskal Herria danok partekatzen dogu, bere esanahi osoagaz: dibertsitatea, inklusinoa, askatasuna. Euskalduntasunaren etxea. Baina etxe guztietan lez, hormak dagoz, espazio ezbardinak sortzeko edota intimitatea eta singularitasuna garatzeko. Naturala bezain abantailatsua da berez. Kontua da, batzuetan, ateak itxita euki ostean, barruan dagoanak ez dauala zabaldu gura; behar dauan guztia eraiki dau bertan; bere "eskemak" sortu ditu, eta ez dau inork hori mogitzerik gura. Geuk be, konturatu barik sarritan, gure ikuspuntua (gustuak, moduak, jakintzak) "tatuatzun" doguz garunean, eta automatikoki "betikoa" egiten dogu, bestelako informazioagazko interes aktiboa jarri barik. "Gure" (posesiboa) erosotasun-gunean bizi gara mentalki: nire herria, nire eskola, nire lagunak, nire kanta, nire egunerokotasuna. Eta jakina dan moduan, zerbaiten jabe izateko nahia, ezer barik geratzeko bildurretik sortu zan gizakia gizaki danetik, oihanean nahiz gizarte zibilizatuan. Zerbait benetan gurea balitz bezala.

Baserri Antzokia Fundazioak –irabazteko asmorik gabeko erakundeak–, "ateak zabaltzen diranean" gertatzen dana ikusi zeuen oholta baten gainean dantzariak, kantariak eta musika-jotzaileak batu ziran: arlo bakotxeko ikuslegoa ikuslego orokor bihurtu zala, ezagutza zabaldu ebela eta interesa ere bai. Aldi berean, ikuskizuna egiten ebiltzan artistek, alkarrekintzaz musika egiteko beste modu batez gozatu eben, ikaspen barriak barneratuta.

*Arlo bakotxeko
ikuslegoa ikuslego
orokor bihurtu zala,
ezagutza zabaldu ebela
eta interesa ere bai*

Proiektu barri bat da abian: Txorierriko eta inguruetako musikariak (instrumentuz, kantuz eta dantzaz) batu eta gurutzatu egingo dira, daukien gaitasuna, esperientzia eta edukiak partekatzeko, bai eurentzako baita ikuslegoarentzako be.

Halan, udazkenetik udabarrira arte aisialdi kulturala antolatzen dihardue Baserri Antzokian. Hatan be, kultura euren eskuz, gorputzez eta ahotsez sortzen daben Txorierriko herritarrek dira protagonista. Baita zeu ere, ikusle. Herritar honeek

musikarekin kontaktuan bizi dira, eta lan handia egiten dabe, bai ikasi eta bai irakasteko ere. Eurenganako esker ona eta miresmena adierazteko aldizkari bat baino gehiago beharko litzateke.

Oraingo honetan, euren ahalegina-ren eta gogoaren emaitzak plazara atara beharrean, Baserrian erakutsiko ditue. Gainera, aukera izango dabe dantza, abesbatz eta musika-tresna ezbardinen talde honeek euren artean "nahasteko" eta alkarrengandik ikasteko. Oraindik antolaketa-prozesuan dago proiektua. Beraz, hurrengo hilabetetik -urritik- aurrera emongo da informazio gehiago. Horrez gainera, sortuko diran alkarketa honeetan parte hartzeko aukeraren barri ere emongo da, ekitaldi egunean bertan edo entsegetan, batzeko gogoa eta konpromezua izanda.

Dana dala, antolaketarako irailaren hamaikan, iluntzeko zortzietan 18 an-





drazko eta gizonezko alkatu gara Baserri Antzokiko txokoan berba egiteko. Batzen gaituan euskara osasuntsuan komunikatu gara, batzuek euskara batuko kolorez egin dabe berba; beste batzuek Txorierriko doinuak. Batzarkide guztiak behargin finak,

eragileak, kultura zaleak, hala dantzan nola musikan. Zeozelan esateko, Txorierri dinamikoaren aurpegia.

Bat etorri gara autortzean, mosutruk gabiltzala, alkar ezagutzea merezi daua-
la, bata besteari laguntzea be bai, edo

doinuak nahiz dantzak trukatzeara. Azken baten, geure esparrutik kanpo ezagutu gagezan, baita geure herritik harago be, errekonozimendua esker oneko izatea da-eta.

Esperientzia pilototzat hartu dogu herri bateko korua hurrengo herriko jantzariekin jardutea, txistulariak korukoekin batzea. Sei hilabeteko aldian, hiru saiotan prestatu ostean eszenara aurkeztea; beste hiru egin ondoren be agertu egitea, eta, hirugarrenez, beste hiru saio egin ostean agertokian sei hilabetekoa burutzea. Kalitatea badago, eta borondatea soberan. Nor, noiz, nogaz alkartuko dan, gorago esan dogunez, hurrengo artikuluetan azalduko deusuegu.

Sorne Unzueta Landeta bilbotarrak, *Utarsusek* idatzi eban: "Ez pentsatu ahu-
lak zaretenik; pentsatu ur-tantek soltean ez dutela ia ezer balio, elkarrekin, ostera, korrante indartsuak sortzen dituzte, mun-
duko turbinei eragiteko bestekoak"⁽¹⁾.

(1) BEGOÑA BILBAO BILBAO: *Mujeres en la Vanguardia de Bilbao* liburutik.

GURASOLAGUN

GURASOAK BERBETAN



- Txorierriko Mankomunitateak antolatutako doako programa da eta **gurasoen eta umeen artean euskarazko harremanak** bultzatzea du helburu.

- Euskaraz egiteko ohitura dugun eta mintzapraktika egin nahi dugun gurasook eta seme-alabak batzen gara hizkuntza-ohiturak aldatzeko, beste euskaldun batzuk ezagutzeko eta umeen arteko euskarazko harremana indartzeko, hau da, **euskaraz bizitzeko**.

- **Eskola** amaitu ondoren, eta aurretik adostutako ordutegian, batzen gara ikastetxeko patioan edo areto batean. Tailerrak egiten ditugu, antzerkia, eskulanak...

Izena emateko

635.75.35.95

txorierri.berbalaguna@gmail.com

Auto elektrikoa modan dago

t: Xabier Diaz / a: zonamovilidad.es

Lehenengo ibilgailu elektrikoak XIX. mendearen erdialdera agertu ziren eta abiaduraren marka izan zuten 1900 urtera arte. Baina barne-errekuntzako motorrak garatu ahala, haien kostu altuaren, abiadura eskasaren eta autonomia txikiaren ondorioz errepideetatik desagertzea ekarri zuen. Orain arte. Eusko Jaurlaritzak adibidez, Mugikortasun Elektrikoaren Plan Integralean 2020rako matrikulazio berrien % 45 ibilgailu elektrikoak izatea jarri du helburu.

Zer dela eta mende bateko desagertze hau? Bateria. Hasierako autoetan, berun oxidoko bateriak erabiltzen ziren, baina arazo bat dute: pisu handiegia. Petrolioaren prezioaren beherakadak eta haren deribatuak diren erregaiei arintasunak barne-errekuntzako ibilgailuak zabaltzen lagundu zuten. Piletan energia kimikoa metatzen da eta erreakzio bati esker hori energia elektrikoa bihurtzen dugu. Pilak egiten hasi zirenetik, aparteko bost aurrerapen teknologiko baino ez

dira egon, eta 30 urte inguru behar izaten dira baterien edukiera bikoizteko. Azkena Sonyk 1991n kaleratutako ion-litiozko pilena izan zen; beraz, hurrengoa gertu dagoela dirudi. Hainbat enpresa eta ikerketa zentro ekinean dabilta, industria eta merkaturak jauzi horren zain baitaude. Eta ez gara oso urrun joan behar: Tecnalía, adibidez, litio eta beste bateria batzuen etekina hobetzeko zenbait material eta nanomaterial ikertzen dabil, 3-D grafenoa, besteak beste.

Bateria horiek duten beste arazoetako bat kargatzeko behar duten denbora da. Gainera, zenbat eta edukiera handiagoa eduki, logikoa denez, orduan eta denbora gehiago behar da. Beraz, auto horien autonomia luzatzeko, ez da nahikoa bateria indartsuak erabiltzea, karga-abiadura ere arindu egin behar da. Merkaturan den "elektrolinera" azkarrenak, 350 Wkoak, 15 minutu behar ditu autonomia 400 km luzatzeko.

Badira merkaturan 400 km edo gehiagoko autonomia duten autoak, eta gehienok horrekin nahikoa dugu. Auto elektri-

koak hainbat abantaila ditu: ez du kerik isurtzen, energia-kontsumo eraginkorra goa da, mantentze-kostu txikiagoa, isila da.... Auto hobea, zalanza barik, eta gero eta merkeagoa.

Bukatzeko, ez gaitezen autoetara mugatu. Bizikletak, taxi-dronak... Edo, zergatik ez, hegazkinak? Garbi eta isilagoak izango lirateke, alde handiarekin. Irudikatzen al duzue hegazkinen zaratarik gabeko Txorierri bat?

How we get to the next big battery breakthrough (Quartz member-exclusive story, available to all readers for a limited time), Akshat Rathi, quartz.com, 2019/04
Coche eléctrico: por qué ha resurgido después de fracasar el siglo pasado, Xavier Giménez Font, theconversation.com 2019/09/04

Bateria, https://eu.wikipedia.org/wiki/Bateria_elektriko

History of the electric vehicle, Wikipedia

Pila, <https://eu.wikipedia.org/wiki/Pila>

Historia de la pila, Wikipedia

Hirietako joan-etorriak era autonomoan egiteko lehen aerotaxia garatu du Tecnalía, tecnalia.com, 2019/07/11

¿Qué es lo que mueve a los autobuses de Barcelona?, Claudi Mans Teixidó, Investigación y Ciencia, 2018/05/28

Mugikortasun elektrikoak, eve.eus



**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu BERRIK
Logopedia
Podologia
Kiroprasajea

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txontxi etorbidea, 9 - Loria | Arriaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 947 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

IRATXO
gazategia

tarta pertsonalizatuak
trufoak
tortak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. lorra | Sordika, 48130 | 94 643 89 19

Diglosiarik bai Txorierrin?

Enara, elaia, golondrina



t: Juan Luis Goikoetxea / a: www.seo.org

Diglosia berba arriskutsua da, era askotara erabili izan da eta. Guk artikulu honetarako Erramon Baxokek darabilena hartuko dugu. Holaxe deskribatzen digu diglosia funtzionalaren izaera: "Bagenekien euskara plazan, merkatuan, elizan eta pilota partidetan zela. Frantsesa, kasu, eskolan, jendarmerian eta postan zen. Diglosia funtzionala deitu horretan bi hizkuntzak bizi ahal dira, bi funtzio ezberdinak betetzen dituztelarik".

Txorierrin honetan erdara non erabiltzen den badakigu, baita euskara ere. Entzun dut udaleko osoko bilkuretan erdaraz egiten dela. Ez dut entzun, berriz, poliziarik euskaraz. Euskara bera, eskolan bai; plazan jai –sei herritatik batean izan ezik–; merkatuan ai!; elizan bai, baina.

Dena den, etxean euskaraz biziz gero; eskolan D ereduaren ikasten bada; EITBko informatiboak euskaraz jarraitzen badira; *Berria* eta Aikor! irakurritz gero, mintza gaitezke diglosia funtzionalaz, gainerakoa erdaraz dela. Hau da, berbeta bat arlo batzuetarako; beste bat besteetarako.

*Diglosiarik bai
Txorierrin? Gurako
bagenu bai. Orduantxe
entzungo genituzke
bai elaia, baita enara
nahiz golondrina ere*

Bestalde, diglosia funtzionaleko egoe-ra askotarikoetan, esate baterako, etxean, zein euskara mota? Batua dakienak, euskara batuan; bizkaiera dakienak Txorierrin-koan. Eta eskolan? Eskolatik etxera datarren umeak enara ikusten du hegaz, elaia baztertuta; saiatu, ahalegindu saihestuta. Nik neure buruari sarritxo itaundu diot: eskola-institutuetan 16 urtean ez ote da astirik enararen aldamenean elaia ikaste-ko edo deusut osorik idazten jakiteko.

Diglosiarik bai Txorierrin? Gurako bagenu bai. Orduantxe entzungo genituzke –bakoitzak bere funtzioa beteta– bai elaia, baita enara nahiz *golondrina* ere.

BC Fun Fitness GYM

EKIPAMENDU BERRIA



Segimendu
pertsonalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
**Prezio bereziak,
talde eta
enpresentzat**

Jarraitu



Ugaldeguren II industrialdea, partzela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymtxorierrin@gmail.com



HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Etxeko sukaldaritza

Izokina laban, barazkiakaz

t: M. Leherika / a: alamesayrico.blogspot.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo bat izokin (lau zati).
- Kinpula handi bat
- Porru bi, tira luzeetan ebagiak
- Azenario bi
- Piper berde bat, tira luzeetan ebagia
- Berakatz-ale bi
- Olioia, gazta, ardo zuri- edo txakolin-zurrusta bat

Prestetako erea:

Barazki guztiak erregosiko doguz orio-zurrusta bategaz: tipula, azenarioak, porruak, piperra eta berakatz. Erdi egin da dagozanean, surtatik atera eta laban erabiltzeko izpil batean ipiniko doguz; eta hareen gainean, izokin-zatiak. Gatza eta ardoa edo txakolina botako deutseguz. Laba berora sartuko dogu eta bertan 180 graduan izango dogu 10-12 minutuan. Mahaira ateratzeko orduan, barazkiak ipini daikeguz arrainaren gainean.



a: blogexquisit.blogs.elle.es



Madari eta txokolatezko pastela

Osagaiak:

- Lau madari
- Jogurt bat
- 80 g gurin
- Azukerea (jogurt-ontzi 2)
- Uruna (katilu bat eta erdi)
- Lau zopa-koilara kakao hutsa hutsa
- Zopa-koilara bi brandy
- Zorro bat legami kimiko
- Hiru arrautza handi

Prestetako erea:

Ontzi handi baten arrautzak, guri-na, brandya, azukerea, kakaoa, uruna eta legamia ipiniko doguz. Osagaiak irabiatuko doguz, harik eta ore fin eta homogeneo bat lortu arte. Madariak zurituko doguz, txortena kenduko deutsegu eta erditik zatituko doguz. Haziak kenduko deutseguz.

Madariak tartak egiteko molde baten ipiniko doguz eta gainetik ore botako deutsegu. Laba berora sartuko dogu eta han 45 minutuan izango dogu 175 graduan.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami buzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cule, 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

R P A
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 432 14 49

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W
www.gaminiz.com

Umeen txokoa: bederatzi desberdintasunak

Ezetz bederatzi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.yodibujo.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Oroimenaren xafakortasunaz* (Erein), Paloma Rodriguez-Miñambres.
–*Atzerrian* (Pamiela), Nerea Balda.
–*Analfabetoa* (Susa), Iñigo Astiz.
–*Aitita-amamen Guda Zibila* (Erein), Miren Billelabeitia.
–*Izuaren osteko gogoeta. Islamismoa eta teoria kritikoa ezkerrean* (Katakarak), Susan Buck-Morss.

LITERATURA: GAZTEAK

–*Kenavo, zaku bete urre!* (Pamiela), Iñigo Ibarra.
–*Ipuina bete otso* (Txalaparta), Roger Olmos eta Roberto Aliaga. Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz.
–*Klarisa eta K Taldea. Arimen Parkearen misterioa* (Erein), Arrate Egaña. Ilustratzailea: Mari Mar Agirre.
–*Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia* (Erein), Robert L. Stevenson. Itzultzailea: Koro Navarro Etxeberria.

Sudokua

		4						5
5							9	
	1		3					
6		5	2					
7					9	2	5	
		3	4					1
	6	2	1				3	9
3		7					6	
							4	7

7	4	8	3	2	9	6	5	1
2	9	1	4	6	5	7	8	3
6	3	5	7	8	1	2	9	4
1	7	6	9	5	4	3	2	8
9	5	2	6	3	8	1	4	7
3	8	4	1	7	2	5	6	9
8	2	7	5	4	3	9	1	6
4	6	9	2	1	7	8	3	5
5	1	3	8	9	6	4	7	2



Azokak

Sondika

- > Enologia Eguna. Urriaren 13an, 12:30ean, Goiri Plazan.

Loiu

- > Nekazaritza, Gastronomia eta Eskulargintza Azoka. Urriaren 20an, 10:00etatik aurrera, Herriko Plazan, Alonsotegi plazan eta frontoian.

Derio

- > Enplegu, Formakuntza eta Ekintzailtza Azoka. Urriaren 24an, Derioko Kultur Birikan.
- > Azoka Mikologikoa. Urriaren 19an eta 20an. Untza mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Larrabetzuko Produktuen XXI. Azoka. Urriaren 20an.

Erakusketak

Derio

- > Ondarearen Europako jardunaldiak: Ondarea plazara eta alderantziz. Urriaren 8an, 16:00etan, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Disoluzio Agiriak poema* liburua, Jose Luis Otamendirekin. Urriaren 17an, 19:00etan Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Derio

- > Makro-argazkilaritza ikastaroa, Fran Nietoren eskutik. Urriaren 26 eta 27an, Holiday Inn Express hotelean. DATEK antolatua.

Larrabetzu

- > Autodefentsa feminista ikastaroa. Urriaren 26an, 10:00etatik 19:00ak arte, Anguleri kultur etxean.



Zazpi senideko. a: www.urolakosta.hitza.eus

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > *Zazpi Senideko* antzezlan, Axut Teatroaren eskutik. Urriaren 20an, Hori Bai gatzetxean.

Irteerak

Derio

- > Panes (Asturias) Tresviso kanala-Tresviso-Urdón. Urriaren 26an eta 27an. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Corconte. Urriaren 19an eta 20an, Zizegorri elkarteak antolatua.

Lezama

- > Ondarearen Europako jardunaldiak: "Mikel Zarateren hats literarioaren atzetik" ibilbide gidatua. Urriaren 6an, 11:00etan, Hilario Astorki plazan.
- > Gorbeia pagadiak. Urriaren 26an, 08:30ean, herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Pagasarri. Irailaren 27an, 09:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Pagasarri. a: i0.wp.com



Jaiak

Derio

- > *Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna*. Urriaren 1ean, 19:00etan, Kultur Birikan. Nagusien Etxeak antolatua.

Zamudio

- > Ondarearen Europako jardunaldiak: Arimen Gauda. Urriaren 31n, 18:00etatik aurrera, Kultur Etxean.

Larrabetzu

- > Akarbaltz Gauda. Urriaren 31n.

Kirolak

Derio

- > Ondarearen Europako jardunaldiak: Pilota plazara. Urriaren 19an, 12:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:00etara; eta urriaren 20an, 12:00etatik 14:30era. Herriko plazan.

Lehiaketak

Mankomunitatea

- > Txorierriko XXII. Ipuin-lehiaketako lanak aurkezteko epea: azaroaren 22ra arte, liburutegietan edo Mankomunitatean.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Ibon RG. Urriaren 20an, 18:30ean.



BERBALAGUN

Euskaraz berba egiteko eta bultzatzeko taldeak

Ikasi

Lagundu

Ondo pasa

MINTZATU!!!

Erabili

Berbaz berba bidea EGITEN

Eman izena! 635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea:  **TXORIERRI**
MINTZATUENA

BERTAKO PRODUKTUEN MERKATUA

05-10-2019

NEKA ZAMUDIO

KULTURA ETXEKO PATIOAN



PIPER EGUNA
PIPERRAK BERTON ERRETZEKO AUKERA

Antolatzailea



Laguntzailea

ZAMUDIOKO
LUR LANGILEEN
ETXEA

Laguntzailea

